



Mai Gorostiaga eta Elena Aranbarri, Antzerki Forumeko aktoreak.

# Konponbiderako **oholtza**

Antzerki-hizkuntza guztien eskura jartzea, ikuslea autore bihurtzeko eta, horrenbestez, fikzio horretan lortutakoa bere bizitzara ekartzeko, errealitatea aldatzeko. Hori da Antzerki Forumaren helburua. Metodologia horretan oinarrituta, Arantzazuko Baketik Zentroak, Eusko Jaurlaritzak lagunduta, eskolan jarrera antisozialak (indarkeria, arrazismoa, bullying-a...) prebenitzeko Antzerki Forum saio arrakastatsuak gauzatu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 8 urtetik 12 urtera bitarteko gazteekin.

«Laguntza eske ari naiz, baina ez duzue ezer egiten. Lehenengo aldian txantxetan ari zinetela uste nuen. Baina gero niri buruzko zurrumurruek zabaltzen ari zinetela iruditu zitzaidan. Bazkaltzeko garaian ez zuen inork nire ondoan eseri nahi. Eta bakarrik egoten nintzen beti. Egun batean, komunean nengoela, kanpotik txistua botatzen, oihuka eta irainka aritu zineten. Beldurra sentitu nuen. Txirrinak jo zuenean bertan geratu nintzen. Gero, gelara itzuli nintzenean, irakasleak errieta egin zidan berandu iritsi nintzelako».

Sararen hitzak dira, bere kideengandik jazarpena jasaten duen neska gaztearen testigantza tristea. Bullying egoera baten biktima da. Alaia eta berri-  
txua zen Sara, bizipoza zerion. Haatik, uzkur bilakarazi dute zenbait eskola-  
kidek, haien krudeltasunak. Bere txantxarako gogoak itzaliz joan dira paira-  
tutako tratu txarren ondorioz. Lorea zirmurtuz. Lotsati, herabe izatera era-



man du jasandako sufrimenduak neskatila, kezkatu izatera. Beldurra-  
ren beldurrez zeharka begiratzen hasiko da Sara, izaturik. Jazarpenak,  
tamalez, amaiera gaiztoa izango du, larria: Sara aldamiu batetik erori  
eta hanka hautsiko du ustezko lagunek egindako txantxa bihozgabe  
batean. Kasua komunikabide guztietan agertuko da.

Eskerrak istorio hori ez den benetakoa izan, antzezlan baten ildoa  
baizik, baina izan zitekeen, horrelako kasuak gertatzen baitira, zori-  
txarrez. Arantzazuko Baketik zentroak bultzatu duen Antzerki Forum  
bateko protagonista da Sara. Antzerki Forum? Ikuslea autore bihur-  
tzen duen antzerki metodologia, errealitatea aldatzeko tresnak ahalbi-  
detzen dituen. Indarkeria eta jarrera arrazistak prebenitzeko Irlandan  
arrakasta izaten ari zen esperientzia bat -Antzerki Forum metodoan  
oinarrituta- ezagutu zuen Arantzazuko Baketik Bake Zentroak  
2006an. Ekimenak berak duen interesaren eta gizartean edo euskal  
eskola komunitatean dagoen kezkaaren aurrean, prebentziozko esku-

hartze honetako bultzatzaileekin hitz egin eta esperientzia pilotu bat  
jarri zuen martxan Baketik iaz, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta  
Gizarte Gaietako Sailaren laguntzarekin.

Irlandan DesertFish Productions produkzio etxeak ipini bazuen  
martxan hau guztia, handik heldu ziren honuntza Orla Hasson eta  
Jenny MacDonald produkzio etxe bereko arduradunak. Hemengo bi  
aktorek euren laguntzaz ikasita hango Antzerki Forum metodoaren es-  
kola jaso zuten eta Orla Hasson berak gidatu zuen proiektua hemen-  
go gizarte mailara egokitzen.

Ikasgeletan jarrera biolentoak eta arrazistak prebenitzeko egitasmo  
berritzaile baten testuinguruan, zortzi eta hamabi urte bitarteko Eus-  
kal Autonomia Erkidegoko 85 ikastetxetako ia 5.000 haurrek ikusi  
dute aurten antzezlan. Eta, hori gutxi balitz, gidoia berridazteko au-  
kera izan dute. Zorigaiztoko bukaera zorionekoa izan dadin konponbi-  
dea eurek beraiek eraman dute oholta gainera. Sara altuera batetik



eror ez zedin, oinaze egoera hori ekiditeko egin beharrekoa proposatu dute. Norabide aldaketa positiboaren gidariak izan dira. Antzezlana-ren parte hartzaile zuzenak.

#### **Antzerki eraldatzailearen ekarpenak**

Gasteizko ikastetxe bateko neska-mutilak dira etortzekoak gaur Arantzazura. Ikasturteko azken saioa da. Goizeko hamaikak. Jada Gandiaga Topagunean behar zuten ikasle eta irakasleek, baina mendi arteko goi txoko eder honetara ekarri behar dituen autobusaren arrastorik ez. Elena Aranbarri eta Mai Gorostiaga, antzezlana-ren aktoreak, terrazatik aparkalekura begira haien zain. «Errepidean auto-ilarak direla-eta berandutu egingo direla abisatu digute oraintxe bertan» esatera hurbildu zaie proiektuaren gidari eta arduradun Orla Hasson irlandarra. Atzerapenez baliatuz, Elena eta Mairekin hizketaldian aritzeko beta hartu dugu.

Tolosarrak aktore biak, Orlarekin ikastaro trinkoa egin zuten Antzerki Forumaren teknikak ikasteko eta benetan pozik daude metodologia horri esker jaso duten guztiarekin. Ekarpen handia izan da beraiantzat, Maik esan eta Elenak baieztatu digunez: «Guretzako sari bikaina izan da ikustea nola hemen landu dugunak gero bere isla duen kanpoan. Antzerki Forumean jardun eta gero, hainbat eskolatatik eskutitz eta komiki oso politak jaso ditugu hemen aurkezturiko istorioarekin lotuak eta irakasle batzuek jakinarazi dutenez, aldaketak, hoberrak, nabaritu dituzte gelan, ikasleen arteko harremanetan».

Indarkeria eta jarrera arrazistekin harremana izanik bukaera zorigaitzokoa duen istorioa antzezten dute Maik eta Elenak lehen ordu erdi inguruan eta, bigarren zatian, ikusleak istorioaren parte sentitzen hasten dira, amaiera positiboago batera bideratzeko zer egin litekeen galdetzen zaienean. Iradokizunak, momentuan, bat-batean asmatzen dira eta azkenean ikusleak beraiek dira ikusi nahi diutzen aldaketak

adierazten dituztenak, taula gainean, aktoreekin batera. Honela, eura dira kontu honetan esku hartzen hasten direnak. Eskuarki bi aktoreek ez dute arazorik topatzen ikasleak parte-hartzera deitzen dituztenean, Mairen esandakoaren arabera: «denon artean konpontzen dugu gidoia, elkarlanean. Azken batean, ikasleak beraien arteko harremanetan ari dira eta ez dute presiorik sentitzen. Taldean ari dira. Antzelanean ikusitako une txarrak oroitzen dituzte beraiek, guk horietako bat aukeratu eta hori konpontzeko zer egin dezakegun proposatzen dute, obraren zuzendari bailiran. Orduan, aldaketak taula gainean egiteko, boluntarioak ateratzen dira. Gertatu izan zaigu noizbait ikusleak parte hartzeko prest ez egotea DBHko gelaren batekin, eta egiazki lur jota etxeratu gara, baina ez da ohikoa».

Ezusteko ugari topatu dituzte antzerki eraldatzaile mota hau lantzean, Elenak azaldu digunez: «Antzerki Forumean ikusi ahal izan dugu gelan erasotzaile diren haur asko ez direla horretaz ohartu ere egiten. Ez dakite larderiako jokabidea dutela. Tailerrean, eztabaidan ari dire-

rumak beste ikuspegi bat hartzen laguntzen die eta errealitateaz jabetzen dira». «Bestetik -erantsi du Elenak-, hemen guztiok antzezlanean lekuko ere bagarenez, konturatzen gara askotan errealitatean ere jokabide oker baten lekuko garelako gehienok baina ez dugula ezer egiten hori aldatzeko. Antzezlanean pertsonaien azalean sartzea egokitzen zaie hemen eta hala, errealitate irudikatuan beren askapena antzezteko gai badira, orduan fikzio horretan lortutako guztia beren bizitzara ekartzen saiatuko dira. Eszena eta eszenatokia bizitzarako praktika-leku bihurtzen dira.

Gorostiagak adierazi duenez, antzerkia ikusi ondoren zenbait ikasle irakasleengana gerturatu ohi dira ezagutu duten bullying kasuren bat kontatzeko. «Pertsonaien lekuan jartzen dira eta biolentziari aurre egiteko zerbait egin dezaketela konturatzen dira. Batzuetan haurren bat negarrez hasten da, horrelako zerbait bizi izan duelako», esan du.

Ikusle gazteak aurkezten zaien istorioarekiko identifikaturik senti daitezen adin bera zein egunero bizi dituzten harreman eta emozio



larik jabetu dira gaizki dagoen zerbait egiten ari direla eta oso une berezia da hori, gogorra sarritan. Barkamen eskaeren lekuko izan gara hemen. Beraientzat ere ezusteko handia da. Euren ekintzen ondorio negatiboak ikusarazten laguntzen die antzerki mota honek». Maik gaineratu duenez, «ikasleek maiz ez dute ikusten non dagoen txantxaren eta benetako gaizakeria mingarriaren arteko muga. Antzerki Fo-

berberak dauzkaten gaztetxoek kontakizunak taularatzen dira. Besteak beste, lantzen diren gaien artean daude arrazakeria, bullying-a eta neska-mutilen arteko harremanak. Azken harreman horiek zein gatazkatsuak diren harri eta lur utzi ditu Mai eta Elena Antzerki Forumeko esperientziak: «Gai honen inguruan ez genuen uste halako bazterketa giroa zegoenik. Askotan mutilek eta neskek ez dute elkarri

# «Hemengo ikasleengan erraztasun handiagoa igarri dut emozioei buruz hitz egiteko orduan»

Irlandan DesertFish Productions produkzio etxeak ipini zuen martxan Antzerki Forumak eta han ikasitako metodoa euskal ikasleei helarazteko heldu zen honunza Orla Hasson. Hassonek berak gidatu zuen proiektua hemengo gizarte mailara egokitzeko: gidoia egokitu eta prestatu, aktoreekin batera entseguak zuzendu, Antzerki-Forum metodoa aplikatzeko aktoreak trebatu, egutegia zehaztu ikastetxe-etako arduradunekin, etabar...

**Haritu: emaitza onak ekarri ditu Irlandan Antzerki Forumak, ezta?**

**Orla Hasson:** oso uzta ona jaso genuen Irlandan egindako lanari esker. Bai iparraldean zein hegoaldean, hiri zein herrietako eskoletan jardun ginen. Hain arrakastatsua izan zen, ezen jarraitzen duten Antzerki Forumak egiten.

**Haritu: zerk bultzatu zintuen Euskal Herrira etortzera?**

**Orla Hasson:** Baketik Zentroak gonbidatu ninduen esperientzia pilotu bat entseatzeko arduradun bat behar zutela esanez eta baiezkoa eman nien. Bada urte bat baino gehiago etorri nintzela.

**Haritu: metodologiak euskal ikasleen artean eraginik izan duela ikusi duzue?**

**Orla Hasson:** ikusteko zaila da hori batzuetan, baina nik baietz esango nuke. Antzerki Forumaren ondotik nolabaiteko segimendua egiten diegu ikasleei. Aste edo hilabete batzuk geroago beren irakasleekin hitz egin eta, eskuarki, haur askorengan aldaketak igarri dituztela esan ohi digute, nagusiki haurren beraien arteko harremanetan. Baldin eta gatazkaren bat bazegoen, antzerki mota hau landu ondoren arazoa modu askeago batean bideratzeko aukera zabaldu dela esan digu irakasle batek baino gehiagok. Azken batean, irakasleek egiten duten lana sostengatzen, berrindartzen dugu hemen, baina haurren partaidetzari lehentasuna emanez. Haurrak benetan protagonistak izate-

ra bultzatuz. Hemen ariketa ez da bakarrik entzutea eta gero hitzez esatea, praktikatu ere egiten dute. Errealitatean topatzen diren pertsonaien azalean sartzen dira haurrak eta horrek gatazkak konpontzeko, jarraitzeko beste urrats oso garrantzitsu bat egitera ahalbidetzen ditu. Bidekoa ez den errealitate bat aldatzeko aukera dute fikzioan.

**Haritu: arazo motei dagokienez, alderik topatu al duzu Irlandako eta Euskal Herriko haurren artean?**

**Orla Hasson:** nik esango nuke hemengo ikasleengan erraztasun handiagoa igarri dudala emozioei buruz hitz egiteko orduan. Oraindik badituzte zailtasun zenbait, haurrak diren aldetik, baina hiztegi oparoagoa dute hemen, eta agian sakonago ulertzen dute pertsonaiek bizi dutena. Badirudi emozioei lotutako gaiak gehiago lantzen, garatzen dituztela hemengo ikastetxeetan. Hortik landa, oso antzeko arazoak dituzte, harreman motak.

**Haritu: euskal gatazkak ba al du islari ikusten dituzuen kasuetan?**

**Orla Hasson:** ez. Gelan dituzten gatazkei buruz haurrekin solasean ari garelarik, ez dute horri buruzko aipamenik egiten. Beraien arteko harremanak ikasgelan dira gai nagusia, lehentasuna, eta baldin eta zailtasunak ikusten badituzte, horiek bideratzeko egon daitezkeen erak aztertu eta gero praktikan jartzen dituzte.

**Haritu: azal iezaiguzu pixkat Antzerki Forumaren jatorria.**

**Orla Hasson:** Augusto Boal antzerkigile, idazle eta zuzendari brasildarrak sortu zuen *Teatro del oprimido* metodologiaren zati bat da Antzerki Forumak. Paris eta Rio de Janeiroko Antzerki Forum zentroaren zuzendaria da Boal gaur egun eta munduko herrialde askotan ari dira garatzen bere metodologia. Antzerki-hizkuntza guztien esku jartzea du helburu, ikuslea autore bihurtzeko eta, horrenbestez, fikzio horre-



tan lotutakoa bere bizitzara ekartzen saiatzeko. Hasieran, herriz herri ibiltzen zen zuzendaria bere antzerki taldearekin. Behin batean, herri batean zirelarik, oholtzan lantzeko gai bat ari ziren bilatzen ikusleen artean, istorio errealak baitira beti abiapuntua. Senarrarekin zuten arazo larria azaldu zuen emakume batek. Mendialdean bikotearentzako etxe bat eraikitzen zihola esanez gizonak asetero alde egin eta, itzulitakoan, faktura mordoa erakusten zion emazteari dirua eskatuz. Honek ez zekien irakurtzen eta, beraz, ezin ulertu fakturretan ageri zena, baina susmoa hartzen hasi zen senarrak ez ote zuen amorantea izango. Fakturak erakutsi zizkien emakumeak ikusleei eta, hara non, amoranteak gizonari idatzitako amodio gutunak ziren. Istorioa gaitzat hartuta antzezlan bat prestatu zuen Boalek eta ikusleei galdetu zien zein izan behar zuten konponbideak. Ikusleek hainbat ideia helarazi zizkieten aktoreei istorioari konponbidezko amaiera emateko. Haatik, aktoreek oholtza gainean gauzatutakoa etxeko egoerara egokitzen saiatu eta ez zen konponketarik lortzen. Handik egun batzuetara, ikusleen arteko emakume bat oholtzara igo zen gatazka konpontzeko bere jarrera zein izango litzatekeen erakustera. Senarrarekin izan beharreko solasaldi argi eta serioa irudikatu zuen, sutuki. Eredu hori etxera eraman eta moldaketak hasi ziren. Honek adierazten du, Boalek dion bezala, persona bat esperimendu-gertaera batekin erlazionatu eta errealitate horretan aktiboki parte hartuz gero pasiboki parte hartzen duenak baino kontzientzia zabalagoa lortzen duela.

## «Erasotzaile diren haur asko ez dira ohartu ere egiten jokabide hori dutela»

Elena Aranbarri, Antzerki Forumeko aktorea Baketik zentroan

ukitu ukitu nahi ere izaten. Bereizketa itzela dago neska eta mutilen artan», Mairen hitzetan.

Gazteengan euskal gatazka islaturik igartzen ote duten galdetuta, ezetz dio aktore bikoteak. Behin baino ez dute ikusi horren aztarna, Elenaren hitzetan: «behin batean, batzuek besteei irainak botatzeko orduan, *español* idatzi zuten mural batean». Elenak kezkatu dioenez, gizartean gero eta zabalduago dagoen jarrera indibidualista hurrengan ere oso agerian geratzen da. «Zortzi urteko hurrekin ikusi dut hori batzuetan eta biziki larria iruditu zait».

Arrazismoak sortutako arazok ere toki nabarmena dutela esan digute Aranbarri eta Gorostiagak. Hain zuzen ere, Sarak, gaurko antzezlanaren protagonistak, bere larruan ezagutuko du arrazakeriaren ankerkeria. Atzerritarra izategatik eraso bortitzak eta bihozgabeak pairatuko ditu bere eskolakideengandik.

### Antzezenaren ordua

Azkenik iritsi da autobusa eta Gasteizko ikasleak Gandiaga Topagunean dira beren irakasleek lagunduta. Orla Hassonek, Maik eta Elenak egin dite harrera 40 bat haurri antzerki aretoan. Gazte-gazteak izanik berenberena duten egonezina arnas daiteke: barreak, elkarri xuxurlak, oihuren bat edo beste arreta bereganatu nahian... Sakelako telefonoak itzaltzeko eta litxarreriak bizkar-zorroetan gordetzeko eskatu zaie hurrei. Denak eser daitezen itxoin eta antzezlanari ekin diote aktoreek.

Gika (lekukoa), Jone (erasotzailea) eta Sararen (biktima) istorioa antzezen hasi bezain pronto ahuldu da murmurioa. Jakin-mina piztu du kontakizunak gazteen artean eta arretaz jarraitzen diote oholtzan gertaz ari denari.

Funtzioan zehar gatzetxoek barre egiten dute batzuetan, modu atsegina eta umoretsuan taularatzen baita istorioa, baina aurpegietan seriotasuna ere hatzeman dakieke bullying-aren ondorioak bere gordinen ikusten dituztenean. Batez ere Sararen istripuarekin istorioa amaitzen denean.

«Zer iruditu zaizue?», galdetu die Mai Gorostiagak obraren amaieran. «Tristeia», erantzun du haur batek. «Tristeia baina polita aldi berean», gaineratu du beste batek. Elenaren galdera hurrengoa: «ezagutzen al duzue antzeko kasurik?». «Bai. Nire ahizpa iraindu egiten dute eskolan», erantzun du mutil batek. «Zergatik iraintzen dute?», galdegin dio Elenak? «Txinatarra delako, atzerritarra». Abian dira identifikazioak.

Ikusi dituzten eszena negatiboak aipatzeko eskatu zaie orain eta zere erantzuten hasi dira: «Gikak Jone eta Sararen arteko errieta ikusi eta parte hartzen ez duenean», esan du batek. «Bazkaltzeko orduan Sarari txistuka eta oihuka hasten zaizkionean», gaineratu du beste batek. «Irakasleek errieta egia dionean gelara berandu iristeagatik», hirugarren batek. Eztabaida txiki bat izan ondoren, aktoreak proposamen bat egin die: «Alda ditzagun zuen ustez negatiboak diren istorioaren zatiak. Zuek zarete orain gidoilari, zuzendari eta aktore».

Orduan, umeek istorioaren zenbait zati aldatzeko iradokizunak egin dituzte, erruz. Aktoreek, momentuan eta bat-batean hurren proposamenak jaso eta ikusi nahi dituzten aldaketak hurrek beraiek adierazi dituzte taula gainean, aktoreekin batera. Sararen istorioa berriro idatzi dute: eraso jasatean irakasleei eta gurasoei kontatu die eta horiek neurriak hartu dituzte gehiago errepika ez dadin. Zorioneko bukaera. Sara jada ez da kikildurik sentituko, ausardiako jarrera hartuko du. Eta agian Sarak bezala larderiako ekintzak pairatzen dituzten beste haur batzuk ere ausartago sentituko dira. Antzerki Forumaren ezagutzeko aukerarik izan badute, agian seguruago azalduko baitira jazarpenaren aurrean. Akaso erasotzailea ere arrazoizko jarrera batera bideratuko du antzerki mota honek.

Eraldaketak, eta onerako jakina, gauzatuko dira ziurrenik. Hori da Antzerki Forumaren xedea, eta, zalantzarik gabe, lortzen ari da. Gaur egun esparru anitzetan erabili ohi dute metodologia hau: hala artistek, gizarte langileek, psikoterapeutek, nola GKEek, bai kale, eskola, eliza, sindikatu, antzerki, kartzela eta abarretan...

# Ekimen berria

Hamabost taldek indarkeria-ezari buruzko eztabaida eta hausnarketa prozesu bat antolatu dute. Ekimena ekainaren 27 eta 28an egingo diren topaketa batzuetan gorpuztuko da eta herritar guztiei zabalik dago.



Bakearen aldeko ahaleginean beste hari-koskor bat ekarri nahian, zenbait pertsona eta taldek ekimen berri bat jarri dute abian: «Solasaldiak: Indarkeria-eza aktiboa, gizarte-eraldatzeko eta bakerako bide bat».

Indarkeria-ezari buruzko eztabaida eta hausnarketa prozesu bat da eta talde hauek hartzen dute parte ekimenean: ArtamugarriaK, Bidea Helburu, Demagun, Gernika Gogoratuz, Internacional de Resistentes a la Guerra eta Lokarrik. Laguntzaile moduan jarduteko: Baketik, Betiko Fundazioa, Centre Delàs d'estudis per la Pau, Euskaria Fundazioa, Fundación Manu Robles-Arangitz Institutua, Iruñeko

KEM-MOC, Bartzelonako Justicia i Pau, Mayores por la paz eta Parte Hartuz-ek.

Proiektu berri hau sustatzen duten pertsonak bizitzaren aurreko jarrera aktiboa dute abiapuntutzat, iragan hilabetean egin zuten prentsa-aurrekoan agertu zuten bezala. Gizarte-aldatzeko nahiak batzen dituela gaineratu zuten, bidegabekeriak amai daitezen nahi dute eta beste era bateko mundua egin dezakegula sinetsita daude, baita bestelako Euskal Herria ere. Indarkeria-eza aktiboa gizarte eta politika-eredu bidezkoagoak eta demokratikoagoak sustatzeko biderik eraginkorrena eta gizatiarrena dela uste dute. Izan ere, indarkeriak ez bezala, bide hori erabiltzeak

beste bidegabekeriarik edo sufrimendu handiagorik eragiten ez duela arrazoitu zuten.

Hausnarketa eta eztabaida prozesu hau bi une edo zatitan garatuko da:

1. Ekaina erdira arte «Gure Gatzaren Ibilaldia» dokumentua oinarri hartuta egingo da hasunarketa hori. Agiriaren goiburua Gandhik egindako «Gatzaren Ibilalde»-tik hartu dute. Sabarmati ibaiaren ertzeraino 1930eko martxoan egindako ibilbidean, hamaika erresistentek egin zuten bat gatza hartzeko keinu sinbolokoaren bidez. Keinu desobeditzailea izan zen, Britainia Handiko inperioak gatzaz eta Indiako beste zenbait produktuz jabetu izanaren aurrean eta horiek monopolio gisa ustiatzearen aurrean. Atxilotuko zutela jaki zuenean, hauxe esan zuten Gandhik: «Indarkeria-ezaren gan kredo bat bailitzan sinesten duen inork ez du zertan geldik geratu». Eztabaidarako Foro bat sortu da [www.solasaldiak.org](http://www.solasaldiak.org) webgunean, gai honekiko interesa duten pertsona eta talde guztiek iruzkinak egin eta beraien ekarpenak ager ditzaten. Ekainaren 27 eta 28an Donostiako Victoria Eugenia hotolean egingo diren topaketetan agiri bat onartuko da ekarpen horiek aintzat hartuz.

2. Beste alde batetik, ekainaren 27an eta 28an Donostiako Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan Solasaldiak egingo dira. «Indarkeria-eza aktiboak gaur egungo munduan duen gaurkotasuna», izenburupean ariko da Mairead Corrigan Maguire, Bakearen Nobel Sariduna, Bakearen Aldeko Emakumeen mugimenduen sortzailea eta Palestina zein Irakeko gatazken konponbidean aktiboki inplikaturik dagoena. Beste hitzaldien izenburuak honako hauek dira: «18/98 sumarioaren sententziak ekarri duen indarkeria-eza eta desobediencia zibila kriminalizatzea», «Herritarren eta gizarte mugimenduen partaidetza» eta «Indarkeria-eza Euskal gatazken konponbiderako estrategia bideragarria».